

## **"NIRE KAMARAREKIN ETXEAN GERATZEN NAIZ" ARGAZKI LEHIAKETA** **OINARRIAK**

Argazkigintzaren praktika sustatzeko, osasun-agintariek ezarritako konfinamendu-arauak errespetatuz, Argazkia Argazki Elkarteak "NIRE KAMARAREKIN ETXEAN GERATZEN NAIZ" lehiaketa aurkezten du.

**PARTAIDEAK:** Nahi duten Urretxuko eta Zumarragako zale guztiek parte hartu ahal izango dute.  
Kategoriak: haurrak, 16 urte barne, eta helduak.

**GAIA:** Konfinamendua. Argazkiak etxetik atera behar dira.

**AURKEZPENA:** Apirilaren 21etik maiatzaren 9a arte, 14:00etan.

**OBRAK LEHIAKETARA AURKEZTEA:** Pertsona bakoitzak bilduma bakarra -3 argazki- aurkeztu ahal izango du. Lanak JPG formatuan bidaliko dira, [argazkielkartea2020@gmail.com](mailto:argazkielkartea2020@gmail.com) helbidera. Lanak bidaltzeko mezu elektronikan, egilearen hainbat datu adieraziko dira, hala nola izen-abizenak, helbidea, telefono-zenbakia eta adina gaztetxo izan ezker (16 urte bitartekoek).

Kamera batekin nahiz mugikor batekin ateratako argazkiak onartuko dira.

Argazkiak ordenagailuan tratatu ahal izango dira, ezer jarri edo kendu gabe (moztu, zuzendu eta kolorez-errebelatu).

Mezu elektronikoa jaso izanaren baieztapena bidaliko da, hura jaso dela frogatzearen.

Artxiboa BEREIZMEN TXIKIAN bidali beharko da. Formatu horizontala badu, alde handienak gehienez 1024 pixel edukiko ditu, eta formatu bertikala badu, 768 pixel.

Epaimahaiaren erabakia jakin ondoren, eta argazkiak argitaratzeko asmoarekin, Elkarteak bideotxo bat egingo ditu argazki guztiekin.

**EPAIMAHAIA:** Gure elkarteko kideak izango dira.

**EPAIMAHAIAREN IRIZPIDEAK:** Argazkien kalitatea, originaltasuna eta gai aniztasuna balioetsiko ditu.

**ERABAKIA ETA SARI BANAKETA:** Epaimahaiaren erabakia maiatzaren 21ean izango da, eta irabazleak bi udalen webguneetan eta komunikabideen bidez argitaratuko dira. Sarituei txeke bat emango zaie Zumarragako eta Urretxuko establezimenduetan trukatzeko (arropa dendak, loradendak, ile-apaindegiak, liburu-dendak, gozoki-dendak, jatetxeak, etab.), alarma-egoera gainditu ondoren.

**SARIAK:** Honako sari hauek izango dira:

- Argazki bilduma onenari:	175
- Bigarren bilduma onenari:	150
- Hirugarren bilduma onenari:	125
- Gaztetxoen bilduma onenari:	100
- Gaztetxoen bigarren bilduma onenari:	75
- Gaztetxoen hirugarren bilduma onenari:	50

**OHARRAK:** Inork ezingo du sari bat baino gehiago eskuratu.

Argazki lehiaketan parte hartzen duenak goitik behera onartzen ditu oinarri hauek. Oinarrietan jaso gabeko gorabehera oro antolatzaileek erabakiko dute. Sariren bat irabazitako bildumak antolatzaileen esku geratuko dira. Lan guztien erabilera eta erreproduzio eskubidea beretzat erreserbatuko dute antolatzaileek, lanen jatorria aipatuz beti ere.

Erakundeak beretzat gordetzen du bere irizpidearen arabera oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten argazkiak baztertzeko eskubidea, bai eta oinarritzko eskubideak (intimitatekoak, pribatutasunekoak edo jabetza intelektualekoak) urratzen dituzten edo konnotazio arrazistak, sexistak eta/edo diskriminatzaileak dituzten argazkiak ere.

**ARGIBIDEREN BAT NAHI IZANEZ GERO, EDO INFORMAZIO ZABALAGOA, ELKARTEAREKIN  
JARRI BEHAR DA HARREMANETAN, [argazkielkarte2020@gmail.com](mailto:argazkielkarte2020@gmail.com)**